



## MERKATARITZA MAHAIA

2024ko irailaren 23a

### GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongietorria eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.
- ✓ Abian den proiektua:
  - Getxo Bono 2024: kanpainari buruzko datuak
  - Aukeren azoka
  - GetxoAktibaTU!
  - 2024ko kontrataziorako laguntzak
  - 2024ko dinamizaziorako laguntzak
  - Enpresak eskualdatzeko programa
  - GetxoHurbil sariak
  - Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia
  - Beste batzuk: Lineako prestakuntza-saioak, Batuz, Enpresetarako aholkularitza-zerbitzua
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

### BERTARATUAK: (% 95)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	EZ BERTARATUAK	
			Arrazoa emanda	Arrazoirik eman gabe
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Virginia García (VITO 52)			X
Portu Zaharreko, Kirol Portuko eta Neguriko ordezkaria	Kimetz Garate (ZURIKALDAI NEGURI)	X		
Romoko ordezkaria	Leire Martin (Expert Cordevi)	X		
Areetako ordezkaria	Itxaso Zelaia (Juan Mari harategia)	X		
Areetako ordezkaria	Sara Mata (COLORES)	X		
Algortako Dendak elkarteko ordezkaria	Amaia Amestoy (Amets)	X		
Getxo Enpresako ordezkaria	Jose Manuel Garay	X		



Romo Bizirik elkarte ordezkaria	Mikel Atxaerandio	X		
Getxoko Udala Ekonomia Sustapenaren Arloa	Mirene Zabalgogeoazcoa	X		
	Rubén Justicia	X		

## EDUKIAK:

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogeoazcoa (aurrerantzean MZ), Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak, bilerara bertaratutakoei ongietorria eman die. Jarraian, talde-etzabaida txiki bati ekin zaio orain arteko denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zein diren azaltzeko. Ildo horretan, bilerara etorritakoek honako hau adierazi dute:

Bertaratutakoek adierazi dute artikulua bat agertu dela prentsan, Bilbok merkataritza-establezimenduen irekierari loturik izan duen bilakaera onari buruz diharduena. Hala eta guztiz ere, adierazi dute hiriburuan ireki diren negozioak ez datozela bat tradiziozko merkataritza-ereduarekin, zerbitzuen sektoreko negozioak baitira: ile-apaindegiak, fisioterapia- eta edertasun-negozioak, aholkularitza-etxeak...

### 2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

#### a) Getxo Bono 2024

M.Z.k bigarren truke-aldi honetan izan diren behin-behineko atxikipen-datuak adierazi ditu:

Kanpainaren lehen aldia: 239 establezimendu atxiki dira

- ITXIERAK, ARRAZOI PERTSONALAK ETA ZORRAK: 13 baja
- ALTAK: Kanpainaren bigarren aldi honetan, urrian, 17 alta berri erregistratu dira.

Bigarren aldiko parte-hartzea guztira: 242

MZk zehaztu du zorren gaineko azken egiaztapenen faltan dagoela.

Informazioa: kanpaina hasteko ordu jakina finkatu da, *urriaren 17an, goizeko 11etan*. Sara Matak aurrekontu-partida handitzeko aukeraz galdetu du. MZk adierazi du, lehenengoz eta bat, kanpainan ezarritako helburua betetzen den aztertu beharko litzatekeela, sektoreak hainbatetan zalantzan jarri duelarik. Era berean, MZk adierazi du ez dagoela Getxoko saltoki guztiak asebetetzen dituen irtenbide perfekturik, eta horren inguruan hausnartzeko eskatu die elkarteen ordezkariari.

Oro har, ordezkarien iritziz, bezeroak ohituta daude deskontu-kanpaina iraunkorrak baliatzeko aukera izatera, eta zaila da bezeroarekiko fidelizazio-estrategiarik lantzea, bezeroari sariren bat eman ezean, eta adierazi dute egoera hori orokorra dela. Amaitzeko, MZk azaldu du

GetxoBono ekimenaren helburua udalerrian kontsumoa epe luzeagoan sustatzea, ikusaraztea eta bezeroak fidelizatzea bada, beste eredu batzuk bilatu beharko liratekeela.

[GETXOBONO kanpainari buruzko informazio gehiago](#)

**b) Aukeren Azoka**

MZk adierazi du, mahai honek eskatuta, kanpainari izena aldatu zaiola aurten eta “Aukeren Merkatua” deitu dutela. Bigarren deialdi honetan izandako parte-hartzea aipatu da:

Mercado de Oportunidades/Histórico participación Aukeren merkatua / parte-hartzaileak kanpainan				
2020	2021	2022	2023	2024
89	64	52	50	52
0	47	45	54	53 / 4 ALTA eta 3 ITXIERA

MZk esan du “Moda eta Osagarriak” sektorearen inguruko kanpaina dela, eta denboraldiko izakinak likidatzea helburu duela.

[Informazio gehiago](#)

**c) GetxoAktibaTU!**

MZk gogorarazi du programa zertan datzan. Azaldu du helburua dela saltokien eta getxoztarren artean ikusgarritasuna handitzea. Gogorarazi nahi izan du 2024ko kanpaina urrian amaituko dela, eta kanpaina berria 2025eko apirilean hasiko dela, jardueraz beteriko agenda izango duelarik.

[Informazio gehiago](#)

**d) 2024ko dinamizatorako laguntzak**

MZk elkarteetako ordezkariari adierazi die hiru elkarteek L1 (jarduerena) eta L3 (elkartearen mantentze-gastuak) laguntzak eskatu dituztela. Dirulaguntza guztiak emanda daudela aipatu da, baina elkarteek ekintza batzuk gauzatzeko dituzte.

Bestalde, Romo Bizirik Elkarteko arduradun Mikel Atxaerandiok zehaztu du “Auzoa koloreztatuz” dinamizazio-ekintza udan egin zela eta “Romotik Mundura” kanpaina irailetik urrira bitartean egiteko dagoela.

Amaia Amestoyk galdetu du zergatik geratu den dirulaguntzarik gabe aurten Getxoko Ostalarien Elkarteak. MZk jakinarazi du Getxoko Ostalarien Elkarteak (ASOHGE) laguntzaren onuradun izatetik kanpo geratu dela, une honetan geldirik dagoelako.



PROIEKTUEN BALORAZIOA (2024)	
60.050,00 €	
<b>ALGORTAKO DENDAK</b>	
BERTOKO DENDAK GURE KALEETAN	GAUZATU BARIK
ALGORTAKO DENDAK EUSKARAREN ALDE	EMANDA
<b>ASOHGE</b>	
LINEAKO KOMUNIKAZIOA BAZKIDEENTZAT	BAZTERTUA
<b>GETXO ENPRESA</b>	
LA SUMA DE TODAS SUS VERSIONES	EMANDA
LOS ESCAPARATES COBRAN VIDA	EMANDA
<b>ROMO BIZIRIK</b>	
COLOREANDO EL BARRIO	GAUZATU BARIK
ROMOTIK MUNDURA	GAUZATU BARIK

## [Informazio gehiago](#)

### e) 2024ko kontrataziorako laguntzak LANBIDEn 2023ko laguntzen deialdiari dagozkionak

MZk azaldu du urrian zabalduko dela besteren konturako langileak dituzten autonomoak kontratatze laguntzen deialdi berriaren epea, baldin eta langile horiek lanaldi partzialeko edo osoko lan-kontratu mugagabeak egiten badituzte, kontratuok 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean hasitakoak badira eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Getxon badute.

Azkenik, MZk laguntza horiek bazkideen eta inguruko establezimenduen artean zabaltzera gogatu ditu mahaikideak. Ekonomia Sustapenak informazio guztia bidaliko du deialdia argitaratzen denean. Bestalde, Rubén Justiciak jakinarazi du laguntzak nahikoa arin agortzen direla, eta, beraz, eskaera egiterakoan, bizkor ibil daitezela eskatu die, laguntzen emakida eskaeraren sarrera-hurrenkeraren arabera ematen baita, betiere eskabidea osorik beteta badago eta zuzena bada.

## [Informazio gehiago](#)

### f) Enpresak eskualdatzeko programa: DEMA (Bizkaiko Foru Aldundia) eta Merkataritza Ganbera (Eusko Jaurlaritza)

MZk azaldu du Merkataritzako Plan Estrategikoak (PERCO, gaztelaniazko laburtzapena aintzat hartuta) adierazten zuela jarduera-ardatzetako bat Getxoko negozioen belaunaldi-txandaketa kontuan hartzea zela. Getxon erretirotik gertu dauden establezimenduen 200 titular baino gehiago daude (5 urteren barruan). MZk esan du datu horrek kezka handia dakarkiola Ekonomia Sustapenaren Arloari; izan ere, arloan jardun ezean, udalerriko merkataritza-ingurunea dezente alda liteke etorkizunean. Horregatik, beharrezkoa da negozio horiek itxi aurretik jardutea.



Hori guztia dela eta, MZk azaldu du Ekonomia Sustapenaren Arloak enpresak eskualdatzeko programa sortu duela, Merkataritza Ganberarekin eta DEMArekin lankidetzan, erretiroan pentsatzen ari den merkataritza Ekonomia Sustapenera jo eta bide osoa egin dezan: azterketa, dokumentazioa prestatzea, balorazio ekonomikoa, negoziazioa eta ondoko eskualdatzea.

MZk adierazi du hainbat informazio-saio prestatu direla.

Bertaratutakoen ustez, Getxoko merkataritzaren etorkizuna ez dago batere argi, eta askotan arazoak izaten dituztela belaunaldien arteko txandaketa edo erreleboa aurkitzeko. Haiek diotenez, 25 eta 40 urte arteko gazteen belaunaldiek ez dute merkataritzako ekintzailatza “diru asko irabazteko” elementu erakargarritzat ikusten, kontrakoa baizik.

### **g) Getxoko Merkataritza Sarien II. edizioa: GetxoHurbil**

MZk azaldu du iazko martxoan abian jarri zela Getxoko Merkataritzako Sarien lehen edizioa: GetxoHurbil sariak. MZk adierazi du ekimen berri honen ildoan, Getxoko udalerriko merkataritza-jarduerei lotutako merkataritza-establezimenduak eta zerbitzuak aitortu, sustatu eta ikusarazi nahi direla, eta sektoreko eragileen lanari balioa eman nahi zaiola, herritarren parte-hartzea bultzatzeaz gain. Hurrengo edizioa 2025. urtearen hasieran egingo da.

### **h) Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia**

MZ: Honako ardatz hauetan garatu beharreko lehentasunak zehaztu ziren:

1. **Enpresen eraldaketa:** Enpresak eskualdatzeko programa.
2. **Dinamizazioa eta hiriko espazioa eta mugikortasuna:** Seinaleak eta hutsik dauden lokalak okupatzea.
3. **Udaleko merkataritza-politiken efizientzia:** Koordinazioa lantzen ari da Merkataritza Ganbera, CECObi eta Eusko Jaurlaritzarekin.

### **i) Beste batzuk: Lineako prestakuntza-saioak, Batuz, Enpresetarako aholkularitza-zerbitzua**

MZk adierazi duenez, BATUZ ezartzeari buruz Bizkaiko Foru Aldundiak darabilen egutegiaren arabera, 2025eko urtarrilaren 1ean derrigorrezkoa izan dela sistema negozio guztietan ezartzea. Horregatik, adierazi du urriaren 9an jardunaldi bat antolatu dela eta izena ematera gogatu ditu partaideak. Bestalde, Rubén Justiciak esan du BATUZ oraindik ez ezartzeko arrazoia teknologikoa bada, tokiko negozioak digitalizatzeko “KIT DIGITALA” izeneko laguntzak balia ditzaketela, eta aholkularitza-ataletik lagunduko dietela prozedura osoan.

## **3. Ideia eta proposamen berriak.**

Leire Martinek iradoki du Getxolanek lan-poltsa bat sor dezan saltokietako bajak bete ahal izateko. MZk erantzun du Getxoko Udalak ez duela dagoeneko enpleguari doakion atala lantzen Lanbidera egindako transferentziez gozotik, eta, hortaz, horren arduraduna Lanbide dela.



Juan Mari harategiko Itxaso Zelaia proposatu du euskal kalitateko okelaren inguruko azoka bat egitea Getxon, kasurako, "Haragi Jardunaldiak: haragiaren eta txingarraren nazioarteko topaldia" delakoaren modukoa, herritarrei Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako hainbat okelamota ezagutzeko eta dastatzeko aukera eskaintzeko eta, horrela, zero kilometroko haragi-produktua indartzeko helburuz. Gainera, esan du azoka Bizkaiko Harakinen eta Txerri Harakinen Elkartek (OKELBIZ) kudea dezakeela. Aurreko deialdiei buruzko informazioa Getxolani bidaltzeko eskatu diote Itxasori, udal-erakundera igorri ahal izateko.

#### 4. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa urriaren 30ean biltzeko deitzea. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

OSTALARITZA-MAHAIAREN ERABAKIAK (2024-09-23):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea.	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Kontratatorako laguntzen deialdiari buruzko informazioa bidaltzea.	Ekonomia Sustapena	Ekonomia Sustapenaren Arloko deialdia onetsi ondoren
3. GetxoBonoren alternatiba bilatzea.	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Itxaso Zelaia eta OKELBIZ elkartearekin batera, 'Haragiaren Azoka Getxon' deritzon ekitaldiaren proposamena igortzea.	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera